



EGIKARITZE LABURPENA

**PANDEMIA,
MIGRATUTAKO
EMAKUMEAK
ETA ZAINTZAK**

EDUKIA

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA.....	3
2. HASIERAKO ZENBAIT IDEIA	4
3. EMAITZAK.....	8
3.1. Lan egoera	9
3.2. Etxebizitza egoera.....	11
3.3. Indarkeriaren egoera konfinamenduan eta pandemian	13
3.4. Jaso dituzten laguntzak.....	15
3.5. Detektatutako beste behar batzuk.....	18

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Getxoko Udalak toki politikak egiteko garrantzitsutzat jo zuen jakitea zein izan den COVID-19aren pandemiak bereziki agertu zenetik eta etapa larrienera, besteak beste konfinamenduan, Getxon zaintza lanak gauzatzen dituzten emakume migratuetan sortu duen inpaktua. Inpaktu hiru alderdi nagusi hauetan aztertu zen: **etxebizitza, enplegua eta indarkeria**. Egoera osotasunean ezagutzeko, emakumeek gertaera horiek nola **bizi izan zituzten** eta zein **laguntza** izan zuten jakin nahi genuen.

Hori lortzeko helburu hauek finkatu genituen:

Helburu orokorra

Getxo udalerrian bizitza egiten duten eta etxeko eta zaintza lanak gauzatzen dituzten emakume migratuengan pandemiak izandako inpaktuari buruzko diagnosi kuantitatibo eta kualitatiboa egitea.

“Getxon bizitza egiten duten” esaldiak esan nahi du azterketan parte hartu zuten emakumeak Getxon bizi edo lan egiten dutela.

Helburu zehatzak

1. Jakitea pandemiak nola eragin dion kolektibo honi bere egoitza beharretan.
2. Jakitea pandemiak nola eragin dion kolektibo honi bere lan baldintzetan.
3. Jakitea pandemiak nola eragin dion kolektibo honi indarkeria matxistaren arloan.
4. Jakitea zeintzuk ziren kolektibo honek aurkitu zituen irtenbideak behar horiei erantzuteko.

Lau helburu horien emaitzekin lerro estrategikoak sortu ziren udalak kolektibo horri zuzenduta egiten duen lanean erabiltzeko.

Metodologia

Helburu horiek lortzeko informazioa batzeko bi teknika hauek erabili ziren: kuantitatiboa, inkesta baten bidez, eta kualitatiboa, inkestaren emaitzetan sakontzeko. Horretarako, hiru foku talde sortu ziren (24 emakumek parte hartu zuten) eta bederatzi elkarrizketa sakon egin ziren.

Postontzietan informazioa banatu zen, inkesta bat egin zen online eta aurrez aurreko inkestak egin ziren baita ere udalerriko hainbat lekutan. Elkarrizketak eta eztabaida taldeak egiteko Mujeres con Voz elkartearen laguntza izan genuen. Elkarte hori Getxoko emakume migratuek osatzen dute eta kide guztiak udalerrian bizi dira.

2. HASIERAKO ZENBAIT IDEIA

Emaitzak analizatzeko esparru kontzeptual bat egin zen eta bertan jaso ziren pandemia garaian migratutako emakume langileek etxeko eta zaintza lanak gauzatzean jasan zuten egoerari buruzko analisi feminista interseksionala osatzen duten alderdiak. Zaintzen krisiari eta migrazioaren feminizazioari, eta zaintzen eredian pandemiak eta konfinamenduak izandako inpaktuari buruzko elementu batzuk ere aztertu ziren.

Hauek izan ziren **kontzeptu esparru** honen hasierako ideiak:

1. Etxeko eta zaintza lanak egiten dituzten emakume migratu langileen egoera ulertzeko ezinbestekoa da analizatzea beren generoari (emakume gisa, gorputz feminizatuak) klaseari (feminizatu eta prekarizatutako lan esparruan dauden langile gisa) arrazari/etniari ¹ (nagusiki pertsona zuriz osatutako gizarte batean arrazializatutako emakume gisa), herritar izaerari (administrazio egoera erregular edo irregularrean dauden egoiliarak) kultura, erlijio, eta abarrei lotutako opresio ardatzek nola eraikitzen duten beren bizia eta nola eragiten duten beren egunerokotasunean

¹ Arraza/arrazializatuak kontzeptua ez dugu erabiliko ezaugarri fenotipikoen arabera gizakien espeziea izendatzeko kategoria gisa, berresten baitugu arraza bakarra dagoela, gizakiarena. Hala ere, terminoaren erabilpen politikoa edo arrazializatutako pertsonen egiten zaien erreferentzia kategoria politiko gisa erabili dugu, zeinaren bitartez bistaratzen baita gizarte honetan zuriak ez garenok/direnek sufrizten dugun/duten zapalketa. Azpimarratu beharreko zapalkuntza formatu bat berdintasun faltsuarena da.

2. XX. mende bukaeran **zaintza krisia** gertatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan emakume asko enplegu merkatuan sartu zirelako, eta beste faktore demografiko eta ekonomiko batzuen artean, faltsuan itxi zen XXI. mendeko lehen hamarkadan, nagusiki migratutako milaka emakumeri esker, tokiko emakumeek etxeko eta zaintza lanetan uzten ari ziren hutsuneak betetzeko prest iritsi zirenak²; horren ondorioz, ezarritako zaintza eredu feminizatua, pribatua eta prekarioa da, eta prekariedade hori gainera, hazten doa.

Zaintza feminizatuak politika publikoetarako gizonen zaintza lanetan duten rola eta emakumeen zaintzeko duten "bokazio naturalak" beharrezko arretarik jasotzen ez duten kultura testuinguru batean gertatzen dira. Emakumeek ordainsaririk jaso gabe zaintzen dituzte menpekotasuna duten familiako kideak, baina, "menpekotasunik ez duten" helduak ere horrela zaintzen dituzte, eta besteen etxeak garbitu eta zaintzeko kontratatuak izaten dira; arreta profesionala ematen dute etxeetan, umeen eskoletan, nagusien egoitzetan eta osasun instalazioetan.

Zaintza pribatizatuak dira, beren bitartekoekin konpondu behar dituzten etxeen kargura, bai familiako emakumeek egiten duten lan ikusezinaren bidez, bai beste emakume batzuei gaizki ordainduta. Horri lotuta, ez dira martxan jarri zaintzeko denborak emakumeen eta gizonen artean birbanatzen dituzten kontzilio neurriak.

Prekarietatea hazten doa zaintza lanetan, izan ere, agentzia eta plataforma digitalak gehitu dira araubide berezi batean lan egiten duten etxeko langileak kontratatuzko; araudi horrek ez die babesik ematen gehiegikeriak gertatzen direnean eta ez ditu beraien lan eskubideak aitortzen.

3. Covid-19ak 2020ko martxotik aurrera sortu zuen pandemiak herritarrak etxeetan "babestera" eraman zituen halabeharrez. Itxialdiaren lehenengo asteetan argi geratu zen indarreko zaintza ereduak arrakala handiak zituela eta pandemiaren aurreko ahultasunak konfinamenduarekin areagotu egin zirela eta joera kezkarriak zituztela.

Hala, nabariko zen konfinamenduaren ondorioz **zaintza lanak berriz ere familian egiten zirela**, izan ere, egunerokotasunak funtzionatzeko ezinbesteko lanak direnez, "ezinbesteko baliabidetzat" jo zituzten eta etxeetan bermatuta geratu behar ziren.

² EAEra 2.000 urtean 6.120 pertsona iritsi ziren, 2020an 13.045, 2005ean 15.822 eta 2008an 20.288, hau da, urtez urte kopurua handitu egin da. 2009 eta 2016 artean iritsierak asko gutxitu ziren, herrialdean atzeraldi ekonomikoa gertatu baitzen.

Konfinamenduak agerian utzi zuen baita ere "zaintza lanak egitean birusarekin kutsatzeko arriskua zegoela"³: emakumeak osasun erakundeetan eta adinekoei arreta emateko zentroetan lan egiten dutenen % 84 dira, baina, era berean, etxeetan berrogeialdiak igaro dituzten kutsatutako pertsonak gehien zaindu zituztenak izan ziren; inguruabar horiekin biekin, emakumeak kutsatzeko arrisku gehien izan dutenak izan dira.

Emaitzak **testuinguruan** jartzeko oinarritzat hartu ziren EAEko migrazioari buruzko datu eta analisi batzuk eta etxeko eta zaintza lanen langileei buruzkoak ere bai.

4. Pandemia inflexio puntua izan da jatorri atzerritarreko herritarren iritsiera fluxuan. 2021an EAEra 4.777 pertsona gehiago iritsi ziren arren, kopuru horrek esan nahi du 2020an erroldatutakoak baino % 75,8 gutxiago izan zirela. Pandemiari aurre egiteko mugikortasun mugatzeek bereziki eragin zieten Latinoamerikatik zetozenei: 2020an EAEra 14.116 latinoamerikar inguru iritsi ziren eta 2021ean 3.873, eta horrek esan nahi du iritsierak % 72,6 **gutxitu** zirela.

Horren guztiaren ondorioz, 2021eko urtarrilaren 1ean EAEn jatorri atzerritarra duten 246.501 pertsona bizi ziren, hau da, biztanleria guztiaren % 11,1.

5. Migratutako biztanleriaren ezaugarri nagusietako bat da jatorri **latinoamerikarreko** herritarren kopurua nabarmenki hazi dela: Latinoamerikako herrialderen batean jaio ziren EAEn 2021eko urtarrilean bizi ziren jatorri atzerritarreko pertsonen erdia baino gehiago (% 51,7). Bestalde, 2020an iritsi zirenen % 72,5 Latinoamerikako herrialde batetik etorri zen. Kolektibo hori garrantzitsua dela adierazten duen datu bat da hamar jatorri herrialde nagusietako zortzi Latinoamerikakoak direla ordena honetan: Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Venezuela, Ekuador, Honduras, Paraguay eta Brasil.

Bigarren ezaugarri nagusia migratutako biztanleen **feminizazioa** da: EAEn bizi diren jatorri atzerritarreko biztanleen % 52,4 emakumeak dira (129.121 emakume). Jatorri latinoamerikarreko herritarren artean emakume kopurua are handiagoa da: % 61,2.

³ García-Calvente, María del Mar (2020). "COVID-19a eta emakumeen osasunean izandako inpaktua: ikaskuntzak eta proposamenak". Emakunde: Garbira pasatzeko oharra. 2020-05-28 <https://www.emakunde.euskadi.eus/emakunde/-/emakunde-virtual/>

6. Ez da erraza jakitea gaur egun zenbat emakume dauden laneratuta estatistika ofizialetan “etxeko sektorea” deritzen kategorian, baina sektorearen hiru ezaugarri nagusiak zeintzuk diren argi dago: feminizazio argia (% 96 ingurukoa)⁴, hiritar migratuak gehitzen ari direla (% 63)⁵ eta Gizarte Segurantzako kotizazioak irregularrak direla (% 31k ez du kotizatzen)⁶.

EAEko etxeko eta zaintza langileengan arreta jartzean aipagarria da 2017an EAE zela etxeek etxeko zerbitzuetan eta etxerako bestelako zerbitzuetan egindako gastu handienetakoa zuten autonomia erkidegoetako bat, eta gastu horrek urteak daramatza estatuko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa izaten⁷.

Orain dela gutxi saiakera egin da kuantitatiboki mugatzeko EAEko etxeko zereginen sektorea.⁸ Horretarako, estatuko eta autonomia erkidegoko hainbat iturri estatistiko erabili dira, eta ondorioztatu da **ezinezkoa** dela zehatz mehatz jakitea gaur egun zenbat pertsona dauden EAEn “etxeko lanen sektorean” lanean.

⁴ Gizarte Segurantzaren arabera, 2017an EAEn afiliatutako 29.683 pertsonen % 95,6 emakumeak ziren.

⁵ BAiren arabera, 2017an Espainiako estatuan 565.100 pertsona inguru kontratatu zituzten zaintza pertsonalak eta etxeko zereginak egiteko, eta horietatik % 63,1 (356.500 inguru) immigranteak ziren.

⁶ 2017an prentsako artikulua batean aipatu zituzten zeintzuk diren Enplegu Ministerioaren arabera Gizarte Segurantzako etxeko langileen sistema berezian kotizatzen ari ziren 424.395 pertsonen eta BAiren arabera etxeko langile gisa etxeko zereginak egiten zituztela zioten 617.400 pertsonen arteko diferentziak. Datu horien arabera, horietatik % 68,7 bakarrik zeuden altan Gizarte Segurantzaren. Eskuragarri hemen: <http://www.publico.es/economia/empleadas-hogar-tercio-empleadas-hogar-nodadas-alta-seguridad-social.html>

⁷ INEren familien aurrekontuen inkesta (2017).

⁸ EAEko etxeko langileen egoeraren eta erantzun behar diren beharren *diagnosia*, 2018an egin zuena UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Laneko Sailak. https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/osalan_not_newsletter2_hogar/es_def/adjuntos/Estudio-diagnostico-empleadas-hogar-es.pdf

3. EMAITZAK

356 baliozko inkesta jaso ziren, eta horrek lagin adierazgarri bat ematen digu % 95eko konfiantza mailarekin eta % 6ko errore marjinarekin. Lagin horretatik % 96k Getxon lan egiten zuen, eta % 62, gainera, udalerrri honetan bizi da. Ez dago diferentzia nabarmenik emakumeen eta lagin orokorraren emaitzen (hau da, Getxon bizi diren eta/edo lan egiten duten emakumeak) eta Getxon bizi direnen artean.

Gehienek barne araubidean lan egiten dute eta 36 eta 53 urte artean dituzte. Gehienak Latinoamerikako herrialdeetakoak dira, nagusiki hauetakoak: Paraguay (% 22), Nikaragua (% 19), Bolivia (% 15), Honduras (% 15) eta Kolonia (% 14).

Inkesta egin zuten emakumeen % 17k NANA du eta % 40k AIZ, eta horrek esan nahi du administrazio egoera erregularrean daudela, baina, guztiek ez dute lan egiteko baimenik. Gainerako % 43aren administrazio egoera irregularra da.

Pandemiak zertan eragin dien galdetuta, denek esan zuten aurkeztutako adierazleren batean eragina izan zuela. Ohikoena inpaktu emozionala izan zen, eta eztabaida taldeetan aipatu zuten etengabeko larritasun eta ziurgabetasun sententzioa zutela. Getxoko emakumeen % 87k esan zuten emozionalki oso kaltetuta zeudela, eta kanpo araubideko 113 langilek eman zuten erantzun hori, eta barneko araubidekoak 76 izan ziren. Zaintza langileen azken talde horren larritasun maila gutxitu zuten bermatutako lana eta etxea izateak.

Arrazoi osoarekin esan zuten **"gari oso latzak eta larritasun handikoak izan direla"**, izan ere, eguneroko atsekabeez gain, beren senideen osasunarengatik kezka zituzten, pandemiak gogor eragin baitzien eta jatorri herrialdeetako osasun zerbitzuak ez zirelako nahikoak edo laguntza ekonomikorik ezin zirelako eman ordaindutako osasun arreta jaso behar zutenean, eta orokorrean, ezin zirelako dirua bidaltzen jarraitu. Egoera horrek konfinamenduan eta pandemiaren aldi zailenetan lau emakumetik hiruri eragin zion eta horrek guztiak presio asko sortzen zieten. Eztabaida taldeetan emakume batzuk esan zuten etapa horretan familien diru bidalketak jaso zituztenak beraiek izan zirela.

3.1. Lan egoera

Orokorrean, emakume migratuen kolektiboak zeregin hauek egiten ditu kontratupean: zaintzak eta etxeko garbiketa (% 42 barneko araubidean eta % 31 kanpokoan). Barne araubideko langileek adinekoak zaintzen dituzte gehiago (% 35), eta kanpo araubidean daudenek adingabeak zaintzen dituzte gehiago (% 24).

Azterketako adierazle bati dagokionez **(pandemiak kolektibo horren lan baldintzetan izan duen inpaktua)** bi adierazleren inguruan egin ziren galderak: inpaktua baldintzetan eta inpaktua baldintza ekonomikoetan. Getxoko emakumeen % 55ek esan zuen pandemiak beren lan baldintzetan eragin zuela, eta % 63k adierazi duen inpaktua baldintza ekonomikoetan gertatu zela.

Berriz ere diferentzia nabarmena dago lan araubideen artean: Kanpoko emakume langileen 69k esan zuten inpaktua lan baldintzetan jasan zutela eta 91k baldintza ekonomikoetan; barne araubideko 50 langilek esan zuten inpaktua lan baldintzetan sufritu zutela eta 44k baldintza ekonomikoetan.

Diferentzia horren arrazoia da kanpo araubideko langileek lan galera gehiago izan dituztela eta barne araubidekoen lan karga handitu egin zela soldata berberarekin.

Hauek izan ziren kanpo araubideko langileen lan baldintzek izandako eraginak:

- Enpleguak galtzea (% 21).
- Lanaldiak murriztea (% 18).
- Lan kargak gehitzea (% 15).
- Soldata gutxitzea (% 10).
- Orokorrean, lan baldintzak okertu egin dira (% 8).

Hauek izan ziren barne araubideko langileek lan baldintzei buruz aipatu zituzten egoera zehatzak:

COVID-19AREN PANDEMIAK GETXON ZAINZA LANAK EGITEN DITUZTEN EMAKUME MIGRATUETAN SORTU DUEN INPAKTUA

- Hitzartutako atseden hartzeko denbora ez errespetatzea (% 49), bereziki gauetan, izan ere, % 70ek esan zuen esnatu egiten zirela zegokion pertsona zaintzeko eta % 13k esan zuen ez zitzaizela atsedenerako denborarik aitortu.
- Soldata berarekin lana gehitzea (% 31).
- Lan baldintzak orokorrean okertzea (% 16).
- Enpleguak galtzea (% 12).
- Pertsona gehiago zaindu behar izatea (% 8).

Enplegua galdu zuten langileak kaleratzeko arrazoi nagusiak hauek izan ziren barneko eta kanpoko langileen kasuan: % 45ean ugazabek birusarekin kutsatzeko beldurra izatea, eta % 27 kaleratu zituzten pandemian ez zituztelako beraien zerbitzuak behar, bereziki konfinamendu garaian.

Enpleguaren inguruan aipatu beharreko azken datu garrantzitsua da inkesta bete duten eta elkarizketatuak izan diren emakumeen % 42k azaldu zutela ugazabek ez zizkietela eman ez maskararik ez gel hidroalkoholikorik beren lana egiteko.

Ia-ia guztiek esan zuten zaila izan arren ez dutela kexatzeko eskubiderik, izan ere, beren lan baldintzak gorabehera, lana dutelako eskertuta baitaude: **“Gaizki pasatu dugu, baina, ezin gara kexatu, gutxienez lana dugu”**. **“Kexatzeko eskubiderik ez izatearen”** sentimendu hori pandemian indartu egin zen eta horrek emakumeak zaurgarritasun egoera handiagoan jarri ditu eta ia edozein lan onartzen dute horregatik, eta batzuetan, eta bereziki iritsi berriekin, ez dira baldintzak aurretiaz hitzartzen.

Horrekin lotuta, eta kontuan hartuta langileen bizilekua albo batera utzita ugazaba ia-ia guztiak Getxon bizi direla, sektore honi zuzendutako lan lerro batzuk hauek izan daitezke:

- Informazio kanpainak egitea migratutako langileak zaintza lanak gauatzeko kontratatzen dituzten familientzat, eta alderdi hauek azpimarratzea:
 - Kolektibo horren lanaren garrantzia baliozkotu behar da, pandemian ezinbestekotzat jo zuten eta horri esker getxotar adineko asko eta asko ondo zainduta daude.
 - Ugazaba gisa dituzten betebeharrak azaltzea.

- o Azaltzea zeintzuk diren etxeko eta zaintza langileek egin ditzaketen ikastaroak beren lana hobeto egiteko eta ugazabek bertara joateko erraztasunak eman ahal izateko.
- o Jakinaraztea eta azpimarratzea langileen lan eskubideak errespetatu behar direla: atsedeen hartzeko denbora, soldata egokiak, osasun eta gizarte laguntza jasotzeko baimenak, eta abar.

3.2. Etxebizitza egoera

Kanpo eta barne araubideko lau langiletatik hiruk lantokitik kanpo etxebizitza edo logela bat dute, eta barneko langileen kasuan gela bat izaten da eta bertan igarotzen dituzte atsedeen egunak.

Getxoko emakumeen % 32k esan zuen etxebizitzaren egoeran pandemiaren inpaktua jasan zutela eta arazo nagusia pandemian alokairuak ordaintzearena izan zen (62) enpleguak galdu zituztelako.

Orokorrean, kanpo araubidean lan egiten duen emakumeek (% 78) esan zuten ez zutela pilatzerik bizi konfinamenduan, baina, lehen beharreko produktuak eskuratzeko arazoak izan zituzten (% 58), eta beste emakume edo herrikide batzuekin etxebizitza partekatzeak aukera izateak inpaktu hori gutxitu zuen.

Barne araubideko emakumeek ez zuten etxebizitza arazorik izan, izan ere, beren lantokia eta etxebizitza bera dira, baina, eztabaida taldeetan aipatu zuten konfinamenduan pertsona gehiago denbora luzeagoan etxebizitza berean egotean beren baldintzak kaltetu zirela, batzuetan etxean zuten logela telelana egiteko edo umeei jolasteko erabiltzen baitzen.

Azterketaren xedea ez izan arren, etxebizitzaren gaia lantzean errolden arazoa aipatu zuten. Gai hori talde guztietan azaldu zen eta batean sakondu egin zuten, izan ere, etxebizitzaren arazoarekin estuki lotuta baitago.

Eztabaida taldeetan parte hartu zutenek betekizun horren inguruko hainbat arazo azaldu zituzten: hasteko, iristen direnean guztiek ez dute erroldaren berri, beraien jatorri herrialdeetan ez baita betekizun bat, eta beraz, iritsi eta berehala

erroldatzeko modua aurkitu behar izaten dute, eta kasu batzuetan hilabeteak igaro behar izaten dira erroldatzea lortu arte.

Hainbat arrazoi daude: nominarik gabe zaila izaten da alokairu kontratu bat lortzea, eta irtenbidea beste pertsona migratu batzuekin logela bat alokatzea izaten da. Hala ere, pisuaren jabea edo kontratuko errentaria (eta beraz, azpierrentatzailea) DSBEren eskatzailea bada, erroldatzea zailagoa izaten da, izan ere, laguntza hori jasotzea arriskuan geratzen da. Batzuetan dirua ordaintzen dute izapidetze hori egiteagatik, behin bakarrik egiten badute kostua gehitzen da, edo hileroko alokairuaren gehigarri gisa ere ordaintzen dute zenbaitetan.

Etxeko barneko langileek zailtasun osagarriak izaten dituzte erregistratzeko ugazabek ez badute nahi lan eta bizi diren etxean erroldatzea⁹. Kasu batzuetan izapide hori egitea errazten dien etxebizitza batean erroldatzen dira nahiz eta bertan ez bizi edo barneko langileak badira bakarrik libre duten egunean bertan bizi direnak.

Aurrerago aipatu moduan, erroldatzearen gaia ez zen azterlaneko gaietako bat, baina, etxebizitzari lotutako arazoak aztertzean agertu zen, eta sakondu beharreko gai bat zela konturatu ginen, izan ere, pandemiatik haratago doa eta langileen zailtasun handienetako bat da. Administrazio erregularizazio bat denez, beraientzat kezka etengabea bihurtzen da, eta halaxe esan zuten.

Zaintza lanen berezitasunak, eta nagusiki adinekoak zaintzen direnean, berekin dakar errollda ebatzi gabe duten edo benetan bizi ez diren udalerrri batean itxuraz erroldatzen diren migratutako etxeko eta zaintza langileek beren egunerokotasuna kaltetua izatea (zaila delako zerbitzu publikoetara joatea lanean dauden orduetan) eta lan egiten duten udalerriko bizitza errealean parte hartu ahal izatea zaintza lanekin lotutako modu hain berezian.

Horregatik, garrantzitsua da ugazabei errepikatzea barneko araubideko langileak nahitaez erroldatu behar direla, eta egoera horretan dauden langileei esan behar zaie eskubide hori oso garrantzitsua dela betekizun horrek ematen dituen eskubideak egikaritu ahal izateko.

⁹ Azterlan hau egiteko etxeko eta zaintza langileek aipatutako zailtasunak, eta orokorrean izendatzen dituztenak galdetzen zaienean zeintzuk diren hirugarren sektoreko erakundeek antolatzen dituzten harrera edo laguntza taldeetan izaten dituzten arazoak.

Eta garrantzitsua da baita ere azpimarratzea lan egiten duten tokian bizi direnen eskubideetako bat dela baldintza onetan dagoen espazio bat izatea eta lan orduetatik kanpo pribatutasuna errespetatu behar dela.

3.3. Indarkeriaren egoera konfinamenduan eta pandemian

Langileen %12k esan zuen COVIDaren aurretik indarkeria sufritzen zuela, nagusiki psikologikoa (erantzunen % 77).

- Konfinamenduan indarkeria ehunekoak asko handitu ziren eta bikoiztu egin zen konfinamenduan indarkeria sufritu zutela esan zuten emakumeen kopurua (% 26). Barne araubideko langileek indarkeria gehiago sufritu zuten (% 43) kanpo araubidekoek baino (% 15). Emakumeen 55ek erantzunetan indarkeria psikologikoa aipatzen zuten eta irainak, kontrola, gutxiespenak eta beti kutsu arrazistarekin eta sexistarekin egindako mehatxuak aipatu zituzten. Indarkeria fisikoa gutxiago aipatu zuten, besteak beste bultzadak, esku-zartak, objektuekin emandako kolpeak, ostikoak, eta abar, nagusiki zaintzen dituzten adinekoen aldetik, eta ugazabek horiek justifikatzen dituzte, esanez zahartzaroko kontuak direla edo Alzheimerra dutela.
- Indarkeria ekonomikoa ere badago, adibidez ez ordaintzea, erosketak egiten dituztenean gastatzen duten dirua kontrolatzea, eta abar, eta baita inguru indarkeria ere, besteak beste logeletara sartzeko erregistratzeko, eta beraien gauzak apurtu edo botatzea.

Indarkeria jasan zuten emakumeen % 43k aipatu zuen ugazaben edo zaintzen dituzten pertsonen gauzatzen zutela indarkeria hori (% 36).

Harrigarria da laneko egoerak okerrera eginda langileek indarkeria egoera horiek txikiagotzea. Eztabaida taldeetan etsipenarekin kontaktatzen zituzten egoera horiek eta jatorri herrialdeetan gizarte mugimenduetako aktibistak zirenek edo emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko kontzientzia gehiago zuten emakumeek argiago aitortzen zituzten.

Horregatik guztiarengatik garrantzitsua da indarkeria matxistaren aurkako udal kanpainenetan migratutako emakumeek bizitzen dituzten egoera espezifikoak gehitzea, izan ere, ikusgarriagoa den eta sufritu dezaketen genero indarkeriaz gain, zaintza langileak edo emakume arrazializatuak direlako bizitzen dituzten beste indarkeria egoera batzuk ere badaude.

3.4. Jaso dituzten laguntzak

Emakumeek kontatu zuten pandemiako oztopoak animikoki eta ekonomikoki gainditzeko laguntza nagusiak hauek izan zirela:

- Lagunak (% 33).
- Senideak (% 24).
- Eliza (% 14).
- Elkarteak (% 7).
- Gizarte zerbitzuak (% 6).
- Erresistentzia kutzak (% 5).
- Familia ugazabak (% 4).
- Auzoetako sareak (% 3).

Aurretik aipatu bezala, pisukideak ezinbesteko laguntza izan ziren laneko baldintzen okertzeari aurre egiteko eta lautik batentzat jatorri herrialdeko familiak ezinbestekoak izan ziren baita ere, ez beti ekonomikoki, baina, bai, aldarteari zegokionez laguntzeko.

Elikagaien bankuak ere oinarrizko laguntzat aipatu zituzten eta eztabaida taldeetako emakume guztiek elizarekin lotzen zituzten, nahiz eta banku horiek Cáritas bezalako elkarteek administratuak izan arren, laguntza publikoa eta herritarrena ere izan duten.

Administrazio publikoek neurri berezi batzuk ezarri zituzten kolektibo jakin batzuei eta etxeko langileei zuzenduta. Udal administrazioek, beren aldetik, larrialdi laguntzak ezarri zituzten (alokairua ordaintzeko, elikagai bonoak, eta abar) kolektibo zaugarrientzat edo gizarte bazterketan zeudenentzat.

Getxon, gainera, udal ordezkariak duten alderdi politiko guztiek hainbat akordio egin zituzten pandemiaren ondorioei aurre egiteko eta Getxo Ekinez 2021¹⁰ programan jaso zituzten. Azterlaneko kolektiboarentzat bereziki interesekoak izan ziren batzuk:

¹⁰ https://www.getxo.eus/DocsPublic/Getxo_Ekinez_2021_cast.PDF

COVID-19AREN PANDEMIAK GETXON ZAINZA LANAK EGITEN DITUZTEN EMAKUME MIGRATUETAN SORTU DUEN INPAKTUA

- ❑ Udal programetan parte hartzeko betekizunak malgutzea eta udal laguntzen eskariak egiteko eta laguntzak jasotzeko administrazio izapideak sinplifikatzea, aitortuz pandemiaren ondorioetako bat izan zela pertsonen eta familien gaitasun ekonomikoa okertu izana.
- ❑ Preskripzio teknikorik behar ez duen, COVID-19ak sortutako gastuak estaltzeko den eta aldizkakoa ez den laguntza iragankor bat sortzea. Laguntza horretan jasotzen ziren gailu elektronikoak edo wifiak, kargupean adingabeak zituzten familietan ikasturtearekin jarraitu ahal izateko.

Bereziki zaurgarriak diren kolektiboak, adibidez, kargupean adingabeak dituzten familiak, haurdun dauden emakumeak, arrisku edo gizarte egoeran daudenak eta genero edo etxeko indarkeria dela-eta arreta jasotzen duten emakumeak eta pertsonak; horiek guztiek udalerrian 3 hilabeteko egoitza eraginkorra egiaztatu behar zuten pandemiaren ondorioak arintzeko laguntzak jasotzeko.

Gainera, elikagaien eta oinarrizko gauzen beharrak estaltzeko laguntzak jasotzeko ez zen beharrezkoa 6 hilabetez errolatuta egotea, baina, beharrezkoa zen errolatuta egotea.

Horrez gain, eta pandemiaren larrialditik haratago, udalak Getxoko Arrera eta Migrazio Bulegoa sortu du 2020-2023 Legegintzaldiko Planaren esparruan. Bulego horrek hainbat oinarrizko zerbitzu eskaintzen ditu Getxo herri atsegina izateko, eta aniztasunaren aberastasuna aitortzen da. Informazio eta arreta baliabideetan migratutako pertsonentzako interes arlo guztiak barne hartzen dira, bai iritsi berrienak bai denbora batez bertan daudenak, eta hainbat hizkuntzatan daude eskuragarri.

Aztertu beharko litzateke zergatik pandemian zehar Getxon bizi diren etxeko eta zaintza langileen artean ez zen hainbeste erabili baliabide hau, nahiz eta inkestetan eta taldeetan errepikatu zen beraientzat garrantzitsua izango litzatekeela udal agintaritzek pandemiaren une larrienetan mezuren bat bidali izana.

Taldeetan aipatu zitzaizkion gizarte zerbitzuak gutxi erabiltzen direla laguntza baliabide gisa, esan zuten arrazoi hauengatik ez direla joaten: ez dutelako ohiturarik beren jatorri herrialdeetan horrelako zerbitzuetara joateko, ez dakitelako

nola funtzionatzen duten, uste dutelako ez dituzten paperak eskatuko dizkietela eta zaila dela gizarte zerbitzuen arretarako ordutegietan bertara joatea. Gizarte Zerbitzuetara joan direnek esan zuten zaila izan dela prozedura guztiak ulertzea, eta ez direla hori esaten ausartzen, izan ere, askorentzat kultura talka handia da bertako herritarrekin komunikatu ahal izatea.

Taldeetako parte-hartzaileek esan zuten zerbitzu horietara goizetan bakarrik joan ahal izatea oztopoa zela, izan ere, lan gehiena goizetan izaten dute, edo baliagarria izango litzatekeela asteburuak barne hartzen dituen eta ordutegi zabalagoa duen informazio telefono bat egotea.

Esan zuten baita ere beharrezko zela informazio esku-orriak beraiek joaten diren lekuetan eskuragarri egotea, adibidez, telefonotegietan, sare sozialetan, latinoamerikarrak joaten diren tabernetan, parkeetan, produktu espezifikoaren saltokietan, eta abarrean, izan ere, askok ezin dute informazio guztia dagoen Interneten sartu, ez dutelako ordenagailurik edo telefono mugikorretan ez dutelako daturik.

Azken proposamen bat izan zen azterketa honen emaitzak hedatuta beraiek esateko dutena entzutea. *Nola lan egiten dugun eta esateko duguna zer den jakinez gero egin ahal izango dira aldaketak sektorean, esan zuten batzuk, eta beraien lanaren garrantzia aldarrikatu zuten baita ere: Zuen etxeak mantentzen ditugu, eta gauza handia da hori!*

Taldeetako parte-hartzaileek esandakoez gain, gure ustez gomendagarria litzateke **“gizarte informazioko eta erreferentziako agenteen”** figura sustatzea, prestakuntza dutenak eta aitortuak direnak baliabideei, beharrei, betebeharrei eta abarrei buruzko informazio guztia emateko.

Zurumurruen aurkako sarea Getxon garrantzia handia duen sarea da, eta erakusten du nola sortu daitekeen sare bat emakume migratzaileen artean etxeko eta zaintza langileengana hurbiltzeko eta beraiei eta ugazabei beren eskubideei buruzko informazioa emateko.

Azterlan honen emaitzak ezagutarazteko gomendioan sakonduta, hedapen jarduerak egitea aholkatzen da eta baliteke horiekin agenteen sare hori sortzea eta bereziki azpimarratu behar da ugazabengana iristea, izan ere, aipatu moduan, Getxon bizi dira eta zaintzen dituzten emakumeen laneko baldintzak hobetzeko eta

aniztasuna integratzen duen herrialde baten nahia errealitate bihurtzeko aukera dute.

3.5. Detektatutako beste behar batzuk

Aurrerago aipatu moduan, pandemiaren inpaktuak hiru arlotan aztertu dira: lana, etxebizitza eta indarkeria, baina, inkesta bete zuten emakumeek beste bi aipatu zituzten, osasuna eta familiako harremanak.

% 51k esan zuen osasun fisiko eta mentala kaltetu zitzaizela pandemiaren ondoriozko konfinamenduan. Alderdi horretan sakondu ez zenez, gomendagarria litzateke etorkizunean aztertzea.

% 41ek aitortu zuen baita ere familiako harremanak okertu direla. Horixe da barneko eta kanpoko langileen artean gutxieneko diferentzia duen adierazle bakarra: Lehenengoetako 46 emakumek esan zuten inpaktu hori negatiboagoa izan zela familia harremanetan, eta bigarrenekoak 44 izan ziren.

Taldeetan gai hori aztertu ez zen arren, beste azterlan batzuetan kontrastatutako testigantzak eta lanak jaso ziren beren seme-alabak berrelkartu dituzten barne araubideko langileen familien egoerari buruz; zailtasun handiak izan zituzten konfinamenduan eta pandemiako une zailenetan seme-alabak hezteko. Batzuk esan zuten antsietate handia zutela bakarrik telefono mugikorren bidez komunikatu ahal zirelako eta ezin zirelako lagundu iritsi berriei.

Kezka horrek zaintza langileei eta gure komunitatean bizi diren adingabeei eragiten die, eta sakontasunez aztertu behar da baita ere.